

Patxi eta Ane ez dira aspalditxoan kalera irten lagunekin, kanpoan gero eta hotz handiagoa egiten du-eta. Abenduan gaudenez, negu gorrian sartuta gaude jadanik. Laster Aneren urtebetetzea izango da eta bi umeak pozik daude, egun horretan lagunekin elkartuko baitira. Bost egun baino ez dira falta. Anek ondokoa proposatu dio nebari:

–Patatak, almendrak, olibak eta horrelako gauza gozoak eros ditzakegu. Zer iruditzen zaizu, Patxi?

–Ogitartekoak ere egin ditzakegu: lukainkaz, gaztaz, txokolateaz... Edateko, zapore guztietako zukuak erosiko ditugu. Baina garrantzitsuena mozzorroren lehiaketa antolatzea da. Primeran pasatuko dugu! Armairuetan jantzi zaharrak bilatuko ditugu. Anek txokolatezko tarta gozoa erosi nahi du eta, haserre samar, hauxe erantzun dio Patxiri:

–Garrantzitsuena tarta eta sei kandelak erostea da. Ez ahaztu neuk betetzen ditudala urteak eta tartako kandelak amatatu behar ditudala.


Patxik mozzorrotzeko arropak bilatu nahi ditu eta etxeko armairuak arakatzan hasi da. Zapatak, zorroak, alkandorak eta mozzorrotzeko baliagarriak izan daitezkeen beste hainbat gauza aurkitu ditu. Aitona Tomasek, mutikoa hain lanpetuta ikusirik, hauxe galdetu dio:

–Zertan zabilta horiekin gauza guztiekin?

–Erabiltzen ez ditugun jantziak biltzen ari naiz Aneren urtebetetze-festan mozzorrotzeko.

–Bai? Eta nola mozzorrotuko zarete, bada? –galdetu du aitonak.

–Begira –dio Patxik, aitonari alkandora zuri bat erakutsiz–. Hau medikuaren bata gisa erabil daiteke, adibidez. Zorroa, bestalde, postariz mozzorrotzeko erabil daiteke eta zapata zahar hauek, pailazoz janzteko. Beste apaingarririk behar badugu, guk geuk egin dezakegu koloretako paperez, kartoi mehez...



1. Zein hiletan betetzen ditu urteak Anek?

2. Noiz elkartuko dira umeak beren lagun guztiekin?

3. Patxirentzat, zer da festako gauzarik garrantzitsuena?

4. Anerentzat, zer da festako gauzarik garrantzitsuena?

5. Zenbat urte beteko ditu Anek?

6. Non aurkitu ditu Patxik mozorrotzeko jantziak?



7. Zertarako balio dute jantzi horiek guztiek?

.....

8. Zer erabil daiteke medikuz mozorrotzeko?

.....

.....

.....

9. Zertarako balio dezake aurkitutako zorroak?

.....

.....

.....

10. Zer topatu du Patxik pailazoz mozorrotzeko modukoa?

.....



Ebaluazioa

- Zuzendu zeure ariketak.
- Margotu gorriz erantzun zuzen bakoitzari dagokion laukia.

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10